

BERTARATUAK- ASISTENTES

Alkate-Udalburua

Beinat Herce Leceta

Zinegotziak

María Arantzazu Iregui Villar  
Jose María Herce Isasmendi  
Leire Urcelay Letona  
Jose Angel Petralanda Gil  
Itziar Marfínez Iregui  
Iñaki Madinabeitia Elorza  
Iker Akizu Olabe  
Aitor Urrutia Oyanguren  
Jose Luis Cantero Morcillo  
Juan Luis Merino Sanabria

Idazkaria. Edurne Iturbe Lascurain.

Eskoriatzan, bi mila eta hamabiko martxoaren 15ean, arratsaldeko seiak eta erdian, Udaletxeko Osoko Bilkuren aretoan, Beinat Herce Leceta alkate jauna buru dela eta goian aipatutakoak bertan direla bildu da Udalbatzarra, Ohiko bilkuran, gai-zerrendan zehaztutako gaiei buruz hitz egiteko.

En Eskoriatza, siendo las dieciocho horas y treinta minutos del día quince de marzo de 2012, en el Salón de Plenos de la Casa de Consistorial quedó constituido el Pleno de la Corporación en sesión ordinaria bajo la Presidencia del Señor Alcalde- Presidente D. Beinat Herce Leceta ,con la asistencia de los señores que arriba se expresan para tratar de los asuntos reseñados dentro del Orden del Día.

## **1. AURREKO BILKURETAKO AKTAK ONARTZEA.**

Ados daudenez onartu egin dute 2012-02-16ko bilkuran jasotako akta.

**Akta onartu ondoren agertu da bilkurara Urrutia jauna.**

### **2.- ALKATEAREN ADIERAZPENAK.**

#### **2.1- Hartutako erabakien gaineko informazioa.**

2012ko martxoaren 9ra arte Alkateak hartutako erabakien berri eman eta horien laburpenen kopia banatu da.

Ondorengo erabakien gaineko berri zehatza eman da:

**ALKATEAREN ERABAKIA**

**ZENBAKIA:** B12/0170

**DATA:** 2012/01/03

**GAIA:** KREDITU ALDAKETA: TXERTAKETA (aurrerapenez inkorporazioa)

**ESPEDIENTEA:** 2012KKRI0001

Eskoriatzako Udalaren 2012ko Aurrekontuan kreditu aldaketa espedientea tramitatu da, aurreko urteko Aurrekontuko kreditu soberakinak txertatzeko.

Aipatutako espedientea aztertu ondoren, Kontuhartzaleak egindako aldeko txostena eta onespen proposamena ere aztertu ditugu, eta baita espedientearen egindako gainerako jarduketak ere.

Udal Entitateen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauak 32.6. artikuluan eta indarrean dagoen Aurrekontua Gauzatzeko Arauak 14 artikuluan, kreditu txertaketa onesteko ematen dizkidaten eskumenez baliatuz, Alkate naizen honak hau

#### **ERABAKI DUT**

**Bat.-** 1 zenbakidun kreditu aldaketa espedientea onartzea -aurreko ekitaldiko aurrekontuko soberakinak 2012ko Aurrekontuari txertatzeari buruzkoa-, ondorengo kapitulu laburpen honen arabera:

#### GASTUAK-GEHIKUNTZAK

Kap.	Izena	Euroak
1	Pertsonalaren gastuak	
2	Ondare arruntak eta zerbitzuak erostea	
4	Transferentzia arruntak	1.688,34
6	Inbertsio errealkak	
7	Kapital transferentziak	
8	Aktibo finantzarioak	
9	Pasibo finantzarioak	
TXERTATUTAKO SOBERAKINAK GUZTIRA		1.688,34

#### SARRERAK-FINANTZAKETA

Kap.	Izena	Euroak
8	Aktibo finantzarioak. Diruzaintzako soberakina	1.688,34
KREDITU TXERTAKETAK GUZTIRA		1.688,34

**Bi.-** Kredituen txertaketa aurreratua behi behinekoa izango da, eta 2011ko aurrekontua likidatu ondoren behin-betiko onartuko da.

**Hiru.-** Egintza hau irmoa eta betebeharrezko da, bestelako tramite barik; beraz, Fondoen Kontuhartzaitza zerbitzuek, onartutako aldaketa Kontabilitatean sartu beharko dute berehalako ondorioekin, sarreretan zein gastuetan.

Eskoriatzan, 2012ko martxoaren 1ean.

ALKATEA

#### ALKATEAREN ERABAKIA

**ZENBAKIA:** 212

**DATA:** 2012-03-09

**GAIA:** HEKUNTZA ZERBITZUAREN KUDEAKETA ESKUORDETZEA

**ESPEDIENTEA:**

**INTERESDUNA:**

2011ko uztailaren 5eko Alkate erabakiz hainbat zinegotziri eskuordetu zitzaizkien udal zerbitzu batzuen zuzendaritza eta kudeaketa. Eskuordetze horrek ez dakar berarekin hirugarrenengan ondorioak dituzten egintza administratiboak emateko eskumena.

Hezkuntza zerbitzuaren zuzendaritza eta kudeaketa ez zen eskuordetu.

Toki Erregimenaren Oinarriak arautzen dituen Legearen 21.3 artikuluan eta azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuz onartutako Toki Erakundeetako Antolakuntza eta Funtzionamendu Arautegiaren 44. artikuluan jasotakoa ikusita, Alkate naizen honek honako hau

#### **ERABAKI DUT**

1. Hezkuntza udal zerbitzuaren zuzendaritza eta kudeaketa eskuordetza Itziar Martinez Iregui andreatsi. Eskuordetze horrek ez dakar berarekin hirugarrenengan ondorioak dituzten egintza administratiboak emateko eskumena.

2. Erabaki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea

3. Erabaki honen berri Udalbatzarrari ematea.

Eskoriatzan, 2012ko martxoaren 9an.

ALKATEA

## 2.- Alkatearen adierazpenak.

2.1.- Martxoaren 8a, Emakumearen Nazioarteko Eguna dela-eta, Udalaren adierazpena. Alkateak jakinarazi du Emakumearen Nazioarteko Eguna zela-eta, ondorengo adierazpena argitaratu zela webgunean.

[Gaur Martxoaren 8a, Emakumearen Nazioarteko Eguna dela eta Udalak adierazpen hau kaleratzen du:](#)

Errekonozimendu osoa eta esker ona adierazi nahi diegu Eskoriatzako Udala osatzen duten emakume guztiei. Ziur gaude zuen lan eta konpromisorik gabe ezinezko litzatekeela eguneroko udal jarduna aurrera ateratzea.

Martxoaren 8 hau lortutako aurrerapausoak ospatzeko baliatu nahi dugu eta, Udal honek oraindik indarrean dauden bazterketak gainditzeko konpromisoa hartzen du.

Azkenik, Emakumeen kontrako biolentzia anitzei aurre egiteko deialdia egiten diegu udal langile eta herritarrei.

## 2.2.- Gai zerrendan ez dagoen gai bat premiazkotzat jotzea gai zerrendan sartzeko.

Antolakuntza eta jarduera araudiko 91. artikuluak emandako ahalmenak erabiliz, Alkate jaunak Udalbatzarraren botoetara jarri du kreditu transferentzia modalitateko 3. kreditu aldaketako expedientea hastearen premiazkotasuna. Expediente horrekin euskara teknikariak gaixotasun bajan dirauen artean berori ordezkatzeko kontrataziotik sortutako gastuei aurre egiteko beharrezko partidak gaitu gura dira.

Premiazkotzat jotzeko arrazoia azaldu ondoren, Udalbatzarrak aho batez, eta legezko gehiengo absolutuaren quorumarekin, gaia galde-eskeen aurretik aztertzea ERABAKI DU.

## **3.- OLAZAR JUBILATUEN TABERNAKO PREZIOAK BAIMENTZEA.**

Gizarte Zerbitzuetako Batzorde Informatzaileak egindako proposamenaren arabera, eta udalbatzarkide guztien aldeko botoekin, Udalbatzarrak OLAZAR jubilatuen tabernako prezio zerrenda onartzea erabaki du: honekin batera doa 1 eranskin gisa.

## **4.- HIDALGA KALEKO 27. ZENBAKIAN DAGOEN LURZATIAN KOKATUTAKO ERAIKINAREN LERROKADURAK ALDATZEKO XEHETASUN AZTERKETA BEHIN BETIKO ONARTZEA.**

2011ko abenduaren 1ean hasiera batean onartu zen "Hidalga kaleko 27. zenbakian dagoen lurzatian kokatutako eraikinaren lerrokadurak aldatzeko xehetasun azterketa". Azterketa hori Amaia Agiriano Arrese, Nagore Tolosa Irazusta eta Ekaitz Uribe Rus arkitektoek egin zuten Amaia Iturbe Urrutiaren eta Fermin Lezeta Belategiren eskariz.

Xehetasun azterketa jendaurrean jarri zen hogeい egunez, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean (235. zenbakia, 2011/12/14) eta BERRIA egunkarian 2011ko abenduaren 7an iragarrita, eta ez da inolako alegaziorik jarri berorren aurka

Horregatik, Hirigintza Batzorde Informatzaileak egindako proposamenaren arabera, eta bertaratutako udalbatzarkide guztiak aldeko botoekin, legeak eskatzen duen gehiengo absolutuaren quorma osatuta, Udalbatzarrak honako hau ERABAKI du:

**Lehenengoa.-** Behin betiko onartzea "Hidalga kaleko 27. zenbakian dagoen lurzatian kokatutako eraikinaren lerrokadurak aldatzeko xehetasun azterketa". Azterketa hori Amaia Agiriano Arrese, Nagore Tolosa Irazusta eta Ekaitz Uribe Rus arkitektoek egin zuten Amaia Iturbe Urrutiaren eta Fermin Lezeta Belategiren eskariz.

**Bigarrena.-** Azterketa Gipuzkoako Foru Aldundira bidaltzea bertako hirigintzako plangintzaren erregistro administratiboan gordetzeko.

**Hirugarrena.-** Behin betiko onarpena Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea eta bertan adieraztea azterketa hirigintzako plangintzaren erregistro administratiboan gordeta dagoela.

**Laugarrena.-** Erabaki hau behin betikoa da eta administrazio bidea amaitzen du. Berorren aurka ondorengo errekursoak jarri ahal izango dira:

— Administrazioarekiko auzi-errekursoa: EAEko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Epaitegiari, erabakiaren jakinarazpena jaso edo iragarki hau argitaratzen den biharamunetik kontatzen hasita bi hilabeteko epean.

— Berrazterte errekursoa Eskoriatzako Udalbatzarrari (nahi izanez gero), aurreko paragrafoan aipatutako errekursoa jarri aurretik, erabakiaren jakinarazpena jaso edo iragarki hau argitaratzen den biharamunetik kontatzen hasita hilabeteko epean.

#### **5.- “SANTA MARINA” HIE-ko “A.20/2” LURZATIAREN XEHETASUN-AZTERKETARI JARRITAKOA ALEGAZIOEN GAINKO ERABAKIAK ETA AZTERKETA BEHIN BETIKO ONARTZEA.**

2011ko azaroaren 15ean, hasiera batean onartu zen ARBIETXE S.L eta GUNEKA S.L. enpresen eskariz Anselmo Iñurrategi Altuna arkitekto jaunak egindako “Santa Marinako A.20/2 lurzatiaren xehetasun azterketa”.

Hasierako onarpena ondorengo zuzenketa eta baldintza betetzearen menpe gelditu zen:

Zuzenketa:

I-5 “Santa Marina 9 HIEko Barne-Erreformarako Plan Berezi zehaztapenak” kapituluko “Exekuzio baldintzak” ataletik transkribatutako lehen paragrafoa ez da zuzena. Bere ordez, behin betiko onartutako Barne-Erreformarako Plan Berezi dokumentuko dagokion paragrafoa sartu behar da, honako hau dioena:

*“El conjunto de la edificación que ocupa la parcela se considera como un “Conjunto Unitario de Edificación”, debiendo en consecuencia presentar un tratamiento constructivo, funcional y estético o compositivo igualmente unitario; al objeto de garantizar la citada uniformidad de tratamiento del conjunto, deberá presentarse, -con carácter previo o simultáneo a la solicitud de licencia-, un Anteproyecto general de la parcela, suscrito por la totalidad de los propietarios de las sub-unidades edificatorias o parcelas mínimas integradas en el “Conjunto Unitario de Edificación”, conteniendo una solución del tratamiento uniforme del conjunto, que deberá respetarse en el/los proyectos de ejecución en que pudieran desglosarse las sub-unidades de ejecución del conjunto, estableciendo además las fases de ejecución de manera coordinada, de tal forma que quede siempre garantizada la posible utilización de las plantas destinadas a aparcamiento colectivo.*

*La presentación y conformidad municipal al citado Anteproyecto será requisito indispensable para la concesión de licencia a las diferentes sub-unidades o bloques de viviendas en que puede dividirse la edificación a efectos de permitir el desarrollo gradual de la misma.”*

**Baldintza:**

*Behin betiko onartu aurretik, dokumentu bateratua aurkeztu beharko da. Dokumentu horretan, aurreko paragrafoan aipatutako zuzenketa jaso beharko da.*

Eskatutako dokumentu bateratua aurkeztu da eta zuzenketa eskatu bezala egin da.

Espedientea jendauurrean jarri da hogei egunez, eta hori iragarri Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean (224. zenbakia, 2011/11/25) eta Noticias de Gipuzkoa egunkarian 2011ko azaroaren 25ean.

2011ko abenduaren 22an alegazio idazkiak aurkeztu zituzten hasierako onarpena zela-eta izapideztako expedienteari Iñigo Aguirre Murguzur jaunak GOI AROBI S.L. enpresaren izenean eta ordezkartzan eta Jon Razkin Ibañez jaunak RAZKIN ERAIKUNTZAK S.L. enpresaren ordezkartzan

Arkitekto aholkulariak egindako txostena eta Hirigintza batzorde informatzaileak egindako proposamena ikusita, Udalbatzarrak, bertaratutako udalbatzarkide guztien aldeko botoekin, eta legeak eskatzen duen gehiengo absolutuaren quoruma osatuta, honako hau ERABAKI du:

**Lehenengoa.-** GOI AROBI, S.L. enpresaren ordezkartzan Iñigo Aguirre Murguzur jaunak aurkeztutako alegazioa ez onartzea ondorengo arrazoiengatik:

OBEaren oinarrizko premisari dagokionez: Jabe guztiekin sinatu behar da

- 3.3 eta 2.21 artikuluetan ezarritakoaren arabera, derrigorrezko da xehetasun-azterketa izapideztea, inolako inposiziorik egon gabe sustapenari buruzko jabe guztiekin.
- Etxegintza lizentzia eman aurretik aurreproiektu bat aurkezteko derrigortasuna dago, eta, hori bai, jabe guztiekin sinatuta egon behar da. Etxegintza lizentziatzat hirigintza lizentzia ulertzen da.
- Beraz, aurkeztu beharreko aurreproiektuari dagokio eraikin azpilurzatiengatik eta, ez, xehetasun-azterketari.

Bestelako gogoetei dagokienez:

- Ez dira tramatzen ari den xehetasun-azterketari egindako alegazio teknikoak, ez dutelako zerikusi zuzena horrekin.

**Bigarrena:** RAZKIN ERAIKUNTZAK S.L. enpresaren ordezkartzan Jon Razkin Reparazek aurkeztutako alegazioa ez onartzea ondorengo arrazoiengatik:

Sustatzaile guztiekin proposamen bateratua ez izateari dagokionez, ez da onartu arrazoi hauengatik:

- 3.3 eta 2.21 artikuluetan ezarritakoaren arabera, derrigorrezko da xehetasun-azterketa izapideztea, inolako inposiziorik egon gabe sustapenari buruzko jabe guztiekin.
- Etxegintza lizentzia eman aurretik aurreproiektu bat aurkezteko derrigortasuna dago, eta, hori bai, jabe guztiekin sinatuta egon behar da. Etxegintza lizentziatzat hirigintza lizentzia ulertzen da.
- Beraz, aurkeztu beharreko aurreproiektuari dagokio eraikin azpilurzatiengatik eta, ez, xehetasun-azterketari.

Eraikinaren etorkizuna baldintza dezakeelako egindako alegazioa ez da onartu:

- Xehetasun-azterketak ez du eraginik ez funtsezko aldaketarik lurzatia kudeatzeko. Era berean, xehetasun-azterketa onartzeak ez du atzeraezinezko erabakiak hartza esan nahi, horrela, etorkizunean bideragarritasun txostenek edo beste baldintzaren batek eremurako indarrean dagoen planeamenduan aldaketak egitea derrigortuko balute, horretarako aukera egongo litzateke.

Xehetasun-Azterketak OBEAko artikuluetan eskatutako aurreproiektua bateratasun horrekin egiteko oinarri orokorrak finkatzen ditu.

Bestelako gogoetei dagokienez, ez dira onartu arrazoi honengatik :

- Ez dira tramatitzen ari den xehetasun-azterketari egindako alegazio teknikoak, ez dutelako zerikusi zuzena horrekin.

**Hirugarrena.-** Anselmo Iñurritegi Altuna arkitektoak ARBIETXE, S.L. eta GUNEKA, S.L. enpresen eskariz egindako "HIE 9 "Santa Marinako" A/20.2 lurzatiaren xehetasun-azterketa" behin betiko onartzea.

**Laugarrena.-** Azterketa Gipuzkoako Foru Aldundira bidaltzea bertako hirigintzako plangintzaren erregistro administratiboan gordetzeko.

**Bosgarrena.-** Behin betiko onarpena Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea eta bertan adieraztea azterketa hirigintzako plangintzaren erregistro administratiboan gordeta dagoela.

**Seigarrena.-** Erabaki hau behin betikoa da eta administrazio bidea amaitzen du. Berorren aurka ondorengo errekursoak jarri ahal izango dira:

— Administrazioarekiko auzi-errekursoa: EAEko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Epaitegiari, erabakiaren jakinarazpena jaso edo iragarki hau argitaratzen den biharamunetik kontatzen hasita bi hilabeteko epean.

— Berrazterte errekursoa Eskoriatzako Udalbatzarrari (nahi izanez gero), aurreko paragrafoan aipatutako errekursoa jarri aurretik, erabakiaren jakinarazpena jaso edo iragarki hau argitaratzen den biharamunetik kontatzen hasita hilabeteko epean.

## **6.- ESKORIATZAKO EZKERRA UDAL TALDEAK GAROÑA IXTEARI BURUZ AURKEZTUTAKO MOZIOA.**

Merino jaunak ondoren osorik transkribatzen den mozioaren xedapena irakurri du:

### **GAROÑA IXTEARI BURUZKO MOZIOA**

Juan Luis Merino Sanabria, Eskoriatzako Udaleko Eskoriatzako Ezkerra udal alderdiaren bozeramaileak honako MOZIO hau aurkeztu nahi du Santa Maria de Garoña zentral nuklearra ixtearen inguruan, ondorengo arrazoiei jarraiki:

### **ARRAZOIAK**

Espainiako Gobernu berriak hasiera eman die Garoñako zentral nuklearren jarduera lizentzia 2019 arte luzatzeko tramei. Hasiera batean zentralerako aurreikusita zegoen balibitzta (40 urte Espainiako zentraletan) joan den urtean, 2011n, bukatu zen. Funtzionamenduan jarraitzeko azkeneko aginduaren indarraldia 2009ko uztailean bukatu zen, eta data horretan PSOEren gobernuak 2013 arte luzatzea onartu zuen. Garoñako zentral nuklearrak 41 urte ditu eta Espainian egun jardunean jarraitzen duen zentral nuklearrik zaharrena da. Gogoan hartu behar da Garoñako zentralak diseinua eta enpresa eraikitzalea partekatzen dituela, General Electric hain zuzen ere, joan den urtean larritasun handieneko istripua izan zuen Fukushima zentral japoniararekin. Biak zentral bikiak dira, are gehiago sare elektrikora urte berean, 1971n, konektatu ziren.

Alderdi Popularraren gobernu berriak Garoñako zentralaren funtzionamendua 2019 arte luzatzeko asmoa arrazoi ekonomikoetan oinarritzen du, baina zentralaren energia ekarpena ez da ezinbestekoa eta 3 bider baino gehiago dago konpentsatua Gaztela Leonen instalatutako haize-potentziarekin soilik. Gainera, gogorarazi behar da Estatu espanyiarak gehiegizko argindar potentzia duela instalatua eta 2004 urteaz geroztik argindar esportatzale dela. Benetako arrazoi ekonomikoa Nucenor zentralaren enpresa titularrari mesede egitea da. Nucenor Iberdrola eta Endesa enpresena da, bakoitzak jabetzaren %50 du eta, eta gutxienez beste 6 urtetan etekina aterako luke instalazio erabat amortizatu horretatik bestelako inolako kontraprestaziorik eman beharrik izan gabe.

Etekin empresarial hori lortuko da Garoña mantentzeak segurtasunarentzat suposatzen duen mehatxua mantentzearen kontura. Burgoseko zentralak erradiazioa askatzeak Ebro ibaiaren arro osoari eragingo lioke, eta bertan 3 milioi pertsona bizi dira. Hurbilen dauden hirietako batzuk, besteak beste, Miranda de Ebro (32 km), Vitoria-Gasteiz (64 km), Bilbo (96 km) eta Laudio (108 km) dira. Fukushima istrripua izan eta gero zentralaren inguruko 30 km-ko eremu bat ebakuatu zuten, eta erradiazioak zentraletik 100 km-tara dauden laboreei eragin die.

Euskal Legebiltzarrek 2009ko ekainaren 12an egindako bilkuran ekimen bat onartu zuen Gobernuari zentrala behin betiko ixteko eskatzen, eta 2009ko uztailaren 5ean bukatzen zen ustiapen lizentzia luzatzearen aurka zegoela adierazi zuen. Euskadin gehiengoa energia nuklearren aurka dago oro har, eta Garoñak martxan jarraitzearen aurka bereziki. Gasteizko alkatea ere, PPko, iragarritako luzapenaren aurka azaldu da. Beharrezko da aukako jarrera hori ahalik eta bide gehienak erabilita adieraztea, erakundeetatik, gizarte mobilizazioak eginda, baita Garoñaren jabe diren konpainie dagokienez ere: Iberdrola eta Endesa.

Adierazitakoarengatik, Udalbatzari proposatzen diogu ondorengo akordioa har dezan.

#### **AKORDIOA**

I.- Eskoriatzako Udalbatzak Espaniako gobernuari eta Segurtasun Nuklearrako Kontseiluari (CSN) eskatzen die Garoñako zentral nuklearrak martxan jarraitzeko baimena ez luzatzeko, eta ahalik eta azkarren behin betiko ixteko.

II.- Jarrera horrekin koherente izateko asmoz, Eskoriatzako Udalak zentralaren konpainia jabeetik, Iberdrola eta Endesari, eskatzen die 2013tik aurrera Garoña ustiatzen jarraitzeko asmoa alde batera utz dezaten.

II.- Mozio honen kopia ondorengoei bidaliko zaie: Industria Ministerioa, Segurtasun Nuklearrako Kontseilua (CSN) eta Iberdrola eta Endesa enpresak.

Izenpetua: Udal bozeramalea Juan Luis Merino Sanabria.

Hitza eman ondoren, udal talde batzuetako ordezkariek hitz egin dute.

Ondoren Urrutia jaunak esandakoa transkribatzen da, 2011ko urriaren 19an egindako osoko bilkuran berak horrela egitea eskatu zuelako: *Guk mozioaren alde bozkatuko dugu. Antzeko gauzak esaten zituen mozio alternatiboa geneukan. Proposatzen zaigun mozioan bi puntu gehiago sartzea proposatzea nahiko nuke: lehenengo, kontsumoa murritzeari eta energia produzitzeko sistema publiko batean oinarritutako energia berritzagarien erabilera bultzatzeari buruz; eta, bigarrena, zentzu horretan egin daitekeen edozein ekimen babesteko konpromisoa har dadila.*

Merino jaunak ez du onartzen proposamen hori eta bozkatuko den testuak ez du inolako aldaketarik.

Bozketa eginda, Madinabeitia eta Akizu jaunen abstentzioarekin, eta bertaratutako gainontzeko udalbatzarkideen aldeko botoekin, Udalbatzarrak mozioa onartu du.

## **7.- PARTIDO POPULARAREN GOBERNUAREN LAN ERREFORMAREN AURKA PSE-EE UDAL TALDEAK AURKEZTUTAKO MOZIOA.**

Cantero jaunak bere taldeak aurkeztutako mozioa irakurri du. Hona hemen hitzez hitzezko transkripzioa:

**PARTIDO POPULARAREN GOBERNUAREN LAN ERREFORMAREN AURKA PSE-EE UDAL TALDEAK AURKEZTUTAKO MOZIOA.**

Eskoriatzako Udaleko udal talde sozialistak ondorengo mozioa aurkezten du osoko bilkuran eztabaidatu dadin:

1.- Udalbatzarrak bere gaitzespen sendoena adierazi gura du Estatuko Gobernuak 3/2012 Errege-Dekretu Lege bidez onartutako lan merkatuaren aldaketari buruz, aldaketok atzerakoia eta bidegabek direlako eta ez dutelako balioko lana sortzeko, baizik eta lanpostuak galtzea errazteko eta lan baldintzak eskasteko.

2.- Era berean, Udalbatzar honek uste du hitzarmen kolektiboen ultrajarduera kentzeko aukera ematea, negoziazio kolektiboari egindako eraso bat dela, negoziazio hori baita lan baldintzak arautzeko abiaburu nagusia.

Udal taldeetako ordezkariek labur hitz egin ondoren, bozketa egin da; eta, Madinabeitia eta Akizu jaunen abstentzioarekin eta gainerako udalbatzarkideen aldeko botoekin, mozioa onartu da.

Urrutia jaunaren boto azalpena (2011ko urriaren 19an egindako osoko bilkuran horrela egitea eskatu zuelako egiten da): *Madrilen dugun ordezkariak neurri horien aurka bozkatu zuen, eta guk, hemen, mozio bien alde bozkatuko dugu. Ez dut gaiari buruz beste ezer esan behar, uste dudalako egoera argia dela.*

## **8.- EZKER ANITZA-IZQUIERDA UNIDAK LAN ERREFORMAREN AURKA AURKEZTUTAKO MOZIOA.**

Ondoren transkribatzen da mozioaren testua:

### **Lan erreformaren aurkako mozioa**

Partido Populararen Gobernuak onartutako otsailaren 10eko Errege Dekretu-Legeak, lan erreformarako presazko neurriei buruzkoak, ugazaben elkarteen eskatzen duen gehienezko programa lege bihurtu du. Lan erreformak Enpresak langileekiko daukan boterea indartu egin du, eta langileen eskubideak moztu ditu.

Erreforma honek kalen utziko ditu milaka langile, kaleratzea merkatu eta erraztu egiten duelako, negoziazio kolektiboa ahultzen duelako eta ugazaben esku jartzen du lan baldintzak aldatzea, honek guztiak langileon egoera zeharo kaskartuko du. Halaber langileon kaleratzea ere asko erratzuko du eta saria jasotzen duten langabetuak derrigorrezko “boluntarioak” bi-

hurtzen ditu. Hau da, erreforma honek ez du lanpostu berriko sortuko, Rajoy Presidenteak ere 2012an langabezia igoko dela onartu du. Azken finean erreforma hau bakarrik idatzi dutenei gustatu zaie, CEOE, CONFEBASK eta ugazaba elkartea orori, zein Europar Batasuneko agintari neoliberalei.

Erreforma honek gure udalerriko langileak oso era larrian kaltetuko dituela ikusita, udal tal-deak Udal Batzari proposatzen dio hurrengo akordioa onartzea:

**AURRENA:** Udal Batzak Estatuko Gobernuari, otsailaren 10eko Errege Dekretu-Legea, lan erreformarako presazko neurriei buruzkoa, bertan behera uzteko eskatzen dio. Erreforma horren helburuak enplegua mantentzearen aurka daude eta langileon kaleratzea errazteko bakarrik balio izango du, langabezi gehiago sortuz eta gure udalerriko langileen eskubideak kaltetuz.

**BIGARRENA:** Udal Batzak herritarrei eskatzen die langileen eskubideen kontrako eraso honen aurrean haien oposizioa adierazi dezatela, eta deitzen diren mobilizazioetan parte har dezatela.

**HIRUGARRENA:** Akordio honen berri ematea Estatuko Gobernuari eta Diputatuen Kongresuari.

Madinabeitia eta Akizu jaunen abstenzioarekin, eta bertaratutako gainontzeko udalbatzarkideen aldeko botoekin, Udalbatzarrak mozioa onartu du.

#### **9.- EZKER ANITZA-IUK “2012KO MARTXOAREN 8A: EMAKUMEAREN NAZIOARTEKO EGUNA” DELA-ETA AURKEZTUTAKO MOZIOA.**

Merino jaunak, Ezker Anitza-IUren izenean, adierazi du mozioa kentzen duela, eta horren ordez ondorengo adierazpena onartzea proposatzen diola Udalbatzarrari:

- *2012ko martxoaren 8ko egun honetan, emakumeen nazioarteko eguna, Udal honek eskubide eta betebehar berak dituzten pertsonen udalerria lortzeko lan egiteko bere konpromiso politikoa berresten du, eta horretarako egun dauden bide legalak erabiliko ditu eta gizonok eta emakumeok garapen aukera berdinak izan ditzagun bideak eta baliabide ekonomikoak ahalbidetuko ditu.*

Madinabeitia eta Akizu jaunen abstenzioarekin, eta bertaratutako gainontzeko udalbatzarkideen aldeko botoekin, Udalbatzarrak mozioa onartu du.

#### **10.- PSE-EE UDAL TALDEAK “ATEZ ATEKO” ZABOR BILKETA SISTEMA EZARTZEARI BURUZ JARRITAKO MOZIOA.**

Cantero jaunak mozioaren xedapena irakurri du. Hona hemen mozioaren transkripzioa hitzez hitz:

**JOSE LUIS CANTERO MORCILLO** jaunak, PSE-EE Udal taldeko zinegotziak, hurrengo Udalbatzarrean eztabaidatu dadin, "atez ateko" bilketa sistema ezartzeari buruzko ondorengo mozioa aurkezten du

#### **ARRAZOIAK**

Orain dela gutxi, Bilduko 34 alkatek, horien arten gure Udalekoak, hiri hondakinak gaika batzeko sistema berri bat martxan jarriko dela iragarri dute.

“Atez atekoak”, horrela deitzen diote sustazaleek, orain arte hondakina osatzen duten frakzioak modu garbian eta antolatuan lagatzeko erabiltzen ziren edukiontzia bide publikoetatik kentzea ekarriko du.

Sistema horrekin jarraitzea erabaki duten udaletan, gero eta gehiagotan, bosgarren edukiontzia jartzen ari dira hondakin organikoa bereizita jaso eta tratamendu propioa izan dezan, eta horrela, hondakindegira bota beharrik edo erre beharrik ez izateko.

Hala ere, “atez ateko” ezartzea atzera egitea da gure kale eta plazen garbitasunari, osasun-egoerari eta estetikari dagokienez. Era berean, elikadura eredua inposatzea ere bada, izan ere, hondakin organikoa bakarrik astelehenetan, ostegunetan eta larunbatetan bota ahal izango baita. Eta, birzikla ezin daitekeen frakzioa astean behin bakarrik bota ahal izango da.

Gainera, atez atekoak ezartzeak Udalarentzat kostuak nabarmen igotzea ekarriko duela ohartarazi gura dugu sozialistok. Langile gehiago beharko dira, eta zabor tasak nabarmen igoko dira ezinbestean.

Bestalde, denok dakigu, dagoeneko Bilduk erabaki duela, agintea duen Gipuzkoako erakundeetan, hondakinei buruz aurreko agintaldian onartutako planifikazio integrala gelditzea.

Horrek, berez esan nahi du herrietan eta hirietan bereizita jasotzen hasi behar diren hondakin organiko kopuru oso handiei erantzuna emango lioketen tratamendu plantetako batzuen garapena bertan behera geldituko litzatekeela. Horren ordez, Bilduk hondakin organiko kopuru handiak inguruko lurralteetara, Nafarroara edo Lapurdira (Iparraldean) eramatea proposatzen du bakarrik.

Bat-batekotasunez eta Gipuzkoak ematen dituen birziklatze maila altuak kontuan hartu gabe kudeaketa arazo larri bati heltzeko modu hori bereziki kezkagarria egiten zaigu krisi garai hauetan, baliabide ekonomikoak alferrik gastatzeak garrantzi kritikoa duenean.

Sozialistok hondakin organikoa bereizita jaso dadila gura dugu, kalitatezko konpost bihurtu eta nekazaritzan, hirietako parkeetan eta lorategietan erabili ahal izateko. Baina, hainbeste arazo eta eragozpen sortu duten Gipuzkoako hondategiak ixtea ere nahi dugu, eta horri guztiorki eraginkortasun eta kudeaketa efikaziaren irizpideen arabera heltzea. Baina, ez gaude prest atzera-egitea ekarriko duten, baliabideak alferrik galtzen duten eta indarrean dagoen ingurumen planifikazioa kontuan hartzen ez duten sistemak inposa diezazkiguten.

Aurrez esandako guztiarengatik, Eskoriatzako PSE-EE udal taldeak honako mozio hau aurkezten du:

#### **MOZIOA:**

**Lehenengo.- Eskoriatzako Udabatzarrak** bere erabateko gaitzespena adierazten du “atez ateko” hondakin bilketa sistema ezartzeari, eredu zikin, antiestetiko, garesti, deseroso eta eraginkortasunik gabekoa delako.

**Bigarrena.- Udalbatzarrak** berretsi egiten du egungo birziklatze mailak igotzeko beharra; ahal den neurrian, hondakindegietara edo energia balorizatzeko instalazioetara eraman behar den zabor kopurua murriztea lortu ahal izateko.

**Hirugarrena.- Udalbatzarrak** Alkateari eskatzen dio hondakin organikoaren bilketa hasi aurretik hondakin organiko biodegradablea Gipuzkoan konpostatzeko beharrezko tratamendu-instalazioak eraikitzearen alde egin dezala. Era berean, erabakitzetan da lehentasuna ematea egindako konposta gure udalerriko parkeetan, lorategietan eta herriko beste gune berdeetan erabiltzeari. Hori guztiori, bidaia garestiak, atmosferari isurkin kutsataileak botatzea eta hondakin organikoak gure lurraldetik kanpora zentzurik gabeko bidaietan garraiatzeak dakarren erregai kontsumoak ekiditearren.

Cantero jaunak hitz egin ondoren, Merino jaunak ondorengo mozio alternatiboa aurkeztu du:

#### GAIA

Herritarrek parte hartzeko bideen beharra hondakinen kudeaketari buruzko erabakietan

#### ARRAZOIAK

Hondakinen kudeaketak eta tratamenduak eztabaida beroa sortu du Gipuzkoako eragile sozial eta politikoen artean. Horrela, errausketaren aldeko alderdi politikoek eta horien pentsakerako komunikabideetatik errausketa ekidingo lukeen gaikako edozein hondakin bilketa herritarrek ez onartzeko kanpaina jarri da martxan. Eta egoera hori, hondakinak tratatzeko eta, beraz, biltzeko, dauden alternatibei buruzko benetako informazioarekin konpondu daiteke bakarrik. Gaur egun, bai Gipuzkoako Foru Aldundia bai hainbat udal aurreko agintaldietan, errausketan oinarrituta, hondakinak kudeatzeko egindako planifikazioa berrazterten ari dira eta alternatibak proposatzen eta martxan jartzen.

Gizartearren zati nagusi batek badaki hondakinen arazoa larria dela. Bistakoa da hondakinen arazoa modu jasangarrian konpontzeko, alde batetik, hondakin gutxiago sortu behar dugula, eta, bestetik, oraingoak baino birziklatze maila altuagoak lortu behar ditugula, Europako herrialde aurreratuenen mailara hurbilduz, eta ahal bada, gaindituz.

Egungo birziklatze mailak handitzeko beharrezkoa da egungo hondakin bilketa sistema aldatzea. Argi dago bi eredu kontrajarri daudela, alde batetik, orain arte egin den borondatezko birziklatze eredua, eta, bestetik, birziklatzea herritarren eginbeharra izan behar den eredua, kutsatzaezin delako eskubide bat izan. Horrela, gaikako asmo handiko edozein bilketa sistemak herritarren parte hartze eta kontzientzia maila handia eskatzen du.

Horregatik, uste dugu beharrezko dela herritarrok ondo informatuta egotea gai horri buruz, helburuak ezagutu ditzatela eta horiek lortzeko moduak, eta baita sistema bakoitzaren alde onak eta txarrak ere, arrazoitutako iritzia izan dezaten. Ondorioz, Eskoriatzako Ezker Anitza-Izquierda Unida taldeak ondorengo mozioa proposatzen du:

#### MOZIOA

1. Udalbatzarrak, hondakinak kudeatzeko sistema osasunarrri, jasangarri eta bideragarri bat lortzeko asmoz, egungo birziklatze mailak handitzeko beharrezko neurriak martxan jartzeko eskatzen dio udal gobernuari, gutxienez % 70era iritsi ahal izateko.

2. Gutxieneko birziklatze maila horretara heltzeko helburuarekin, eta gure herrian jarri beharreko hondakin bilketa eredu erabaki aurretik, parte hartze prozesu bat martxan jartzeko eskatzen dio Udalbatzarrak udal gobernuari. Prozesu horretan benetako informazioa, gardena eta osoa eman beharko da hondakinen tratamenduari eta bilketari buruz, eta baita errausketak pertsonen osasunarentzako eta ingurumenerako duen arriskuari buruz ere. Udalak bideak jarri beharko ditu herritarrek horri buruzko iritzia emateko kontsulta bidez.
3. Eskoriatzako Udalbatzarrak konpromiso sendoa hartzen du bere egiteko parte hartze prozesuko emaitzak eta herritarren nahia errespetatzeko.
4. Hasieratik hondakinik ez sortzeko eta produktuen gehiegizko paketatzea ekiditeko “enbalaje legea” egiteko eskatzen dio Eskoriatzako Udalak Eusko Jaurlaritzari.

Hitza eman ondoren, eztabaidea luzea izan da, eta udal taldeetako bozeramaile bakoitzak “atez ateko” gaiari buruz duen jarrera arrazoitu du.

Ondoren, Urrutia jaunak esandakoa transkribatzen da, 2011ko urriaren 19an egindako osoko bilkuran berak horrela egitea eskatu zuelako:

Guk alderdi sozialistak aurkeztu duen mozioaren alde bozkatuko dugu. Eta, uste dut eztabaidea hau edo antzekoa izan genuela gutxi gorabehera duela bi hilabete, alderdi sozialistak beste mozio bat aurkeztu zuenean. Eta nik, orduan, esan nuen, eta uste dut Gipuzkoako lehenengoa izan nintzela, mozio horren alde geundela eta, gainera, kontsulta bat egitea proposatzen genuen. Eta, gainera, kontsulta argia izatea (“atez atekoia” bai edo ez) eta loteslea. Azken finean, uste dugulako nahiko arrazoi dagoela hori eskatzeko. PSOEk aurkeztutako mozioan honako hau esaten da hasieran *“Orain dela gutxi, Bilduko 34 alkatek, horien arten gure Udalekoak, hiri hondakinak gaika batzeko sistema berri bat martxan jarriko dela iragarri dute”*. Eta hemen asko hitz egiten da informazioaz, baina, hemen informazio gutxi egon da “atez atekoari” buruz edo hondakinak biltzeko beste sistemei buruz. Prentsaren bidez jakin izan dugu maiatzean izango dugula osoko bilkura baietz edo ezetz erabakitzeko. Eta, ez hori bakarrik, Gipuzkoari begiratu bat ematen badiogu, jakin izan dugu Asteasu bezalako herriean ere, BILDUK agintzen duen lekuau, prentsa bidez enteratu direla. Eta esan dute beraien herriean herriak esaten duena egingo dela. Enteratu gara ere Aretxabaletan nolabaiteko prozesu parte hartzalea hasiko dutela, zer da prozesu parte hartzale bat? Zehaztasun gabeko egoera horren aurrean zuzenean eskatzen dugu kontsulta egin dadila. Uste dut batzuek “totem” berri bat egin dutela horren gainean. Aurreko agintaldian ikur politikotzat hartu zuten erraustegiaren aurka egotea, eta, orain, hori utzi ezinda dabilta. Zeren eta hemen gauza bat dago garbi: “atez atekoia” egin daiteke erraustegiarekin eta 5. edukiontzia jarri daiteke erraustegirik gabe. Eta, aldiz, batzuk gauza biak lotzen tematuta daude. Azken finean, denok gaude birziklatzearen alde, jakinekoa da gehiago birziklatu daitekeela, eta uste dut denok ados gaudela horrekin. Baino, bada hondakinen %20 edo % 30 bat ezin dena birziklatu eta nonbait bota behar dena, eta horren aurrean bi aukera daude: erraustegia edo hondakindegia. Orain zaborrak Burgosera, Soriara eta ez dakit zein lekuetara eramatzen hasi gara. Eta, ez bagara hasi, hasiko gara. Eta uste dugu sistema hori ez dela egokiena, gure bizitza zaborraren inguruuan antolatzera behartzen gaituelako. Gaur egun ezin da lortu benetan “ZERO ZABOR”, eta “ZERO ZABORRAREN” aldekoa naiz. % 70era iritsi ahal izango gara, eta denok iritsi nahi baldin badugu. Baino, gaur egun, %20a edo % 30a ezin da birziklatu. Eta horri irtenbide bat eman behar zaio. Eta, esan dudan bezala, bateragarriak dira “atez atekoia” eta erraustegia, eta 5. edukiontzia erraustegirik gabe. Eta uste dugu hor dagoela “atez atekoaren” aldekoek erabilitzen duten argudioetako baten akats larria. Eta, gero bada kontu bat, nire ustez behar besteko garrantzirik ematen ez zaiona. Nik “atez atekoia” askatasunaren aukako sistema bat ikusten dut. Inork ez duelako zertan ireki inoren zabor poltsarik, inork! Zabor poltsa irekita bakoitza nola bizi den kontrolatzen da, zer kontsumitzen duen bakoitzak... eta hori ez da alarmismoa, hori egia bat da, hori errealitatea da. Gainera, ikusten dugu basura-turismoa indartzen ari dela, bai herritarrek egindakoa eta bai, azken aldia, Aldundiak berak egindakoa. Batzueta ez dakit

Euskal Herriko zein lekutara, eta beste batzuetan, dirudienez, Burgosera, Segoviara edo Soriara. Eta guri hori ez zaigu egokia iruditzen.// Ezker Anitzaren mozioari dagokionez, gauza batzuk onartezinak iruditzen zaizkigu. Esate baterako, honako hau dioenean: "**Horrela, errausketaren aldeko alderdi politikoek eta horien pentsakerako komunikabideetatik errausketa ekidingo lukeen gaikako edozein hondakin bilketa herritarrek ez onartzeko kanpaina jarri da martxan**". Hori esatea ezer ez esatea da, honako hau ere esan zitekeelako: ""Atez atekoaren" aldeko alderdi politikoek eta horien pentsakerako komunikabideetatik, egon badaudelako, egungo sistema ez onartzeko kanpaina jarri da martxan, eta gainera, ez da konpontzen edukiontzi bat bera ere ez, eta dena hondatzen lagatzen da, eta abar". Hori esatea ezer ez esatea bezala da. Eta honako hau: **Eta egoera hori, hondakinak tratatzeko eta, beraz, biltzeko, dauden alternatibei buruzko benetako informazioarekin konpondu daiteke bakarrik.** Zer nolako informazioa izan dugu Udal honetan? Nork ukatzen du informazioa? Noren esku dago informazioa? Nork ditu webguneak? Noren menpe dago informazioen kontu guztia udaletxe honetan? 5. edukiontiaren alde dauden menpe? Edo horrelako gauzak: **Gaur egun, bai Gipuzkoako Foru Aldundia bai hainbat udal aurreko agintaldietan hondakinak kudeatzeko egindako planifikazioa berraztertzen ari dira.** Bada, berraztertea daukate gura dutena, baina, horren eskumena Batzar Nagusiak daukate, eta, bestela, foru araua berraztertu. Aurrerago honako hau ere esaten da: **Bistakoa da hondakinen arazoa modu jasangarrian konpontzeko, alde batetik, hondakin gutxiago sortu behar ditugula, eta, bestetik, oraingoak baino birziklatze maila altuagoak lortu behar ditugula, Europako herrialde aurreratuuenen mailara hurbilduz, eta ahal bada, gaindituz.** Oso ondo, ni erabat ados nago horrekin, baina, Europako herrialde aurratuenetan beraien hirietako ibilbide turistikoetan ere erraustegiak dituzte. Lehen Madinabeitiak galdu du Garoñara joan ote garen, Vienan egon zarete? Kopenhaguen? Parisen? Edo, horrelako gauzak esatea: **Argi dago bi eredu kontrajarri daudela, alde batetik, orain arte egin den borondatezko birziklatze eredu, eta, bestetik, birziklatzea herritarren eginbeharra izan behar den eredu, kutsatzea ezin delako eskubide bat izan.** Horrela, gaikako asmo handiko edozein bilketa sistemak herritarren parte hartze eta kontzientziazio maila handia eskatzen **du.** Nik uste dut bi eredu daudela: bata, askatasunarena eta pedagogiarena, eta, bestea, inposizioarena. Eta ez dago ikusi besterik Gipuzkoan birziklatze mentalitatea sustatzen ari denetik 10 urtetan %17 birziklatzetik %45 birziklatzera igaro garela. Edo, gauza gehiago: **parte hartze prozesu bat martxan jartzeko eskatzen dio Udalbatzarrak udal gobernuari.** Zer da herritarrek parte hartzea prozesu bat? Zer da kontsulta bat? Zehaztuko dizkiguzu? Beharbada, izan daitekeelako hautestontzi bat jartza eta gainean ESKOHITZA jartzen duen paper bat jartza, lehengo ezker abertzalearen blog bat zena, eta orain parte hartze eredu bihurtu dutena. Hautestontzia han, liburutegian, jartza da? Zergatik ez da jartzen udaletxean egoitzarekin egin zen bezala? // (Aldundian agintzen zutenean erraustegia bai edo ez galdetzea pentsatu ote zuten Merino jaunak egindako galderari erantzunez, honela erantzun du). Hain zuzen, nik ezin diot horri erantzun, eta badakizu zergatik? Zuek ez duzuelako inoiz agindu, baina, esaten ari garenaz barrezka eta irrifarreka ari diren beste batzuei esan diezaiekegu lehenengoz agintzen hasi direnean, eta eskatzen zaien lehenengo aldian, zipaoek eta beste batzuk eskatzen diegunean, kontua da ez dutela egiten. Zuri ezin dizut erantzun ez duzuelako agindu. Eta beste gauza bat ere esango dizut: guk proposatzen dugun sistema ez da guk asmatutakoa, guk proposatzen dugun sistema gaur egun Alemaniako berdeek proposatzen duten sistema da, 80. hamarkadan ekologismo utopikoko barrikadetan egotetik 90. hamarkadatik aurrera sistema honen alde egotera pasa direnena. Eta Alemaniak ehuneko hirurogeita piku birziklatzen du, eta gainerakoa, hondakindegira botatzen den % 1 edo 2 kenduta, erre egiten dute. Horiek dira datuak Juan Luis, eta zuri esaten dizudanak balio du zure esanak aurpegi onez hartzen dituzten guztientzako ere.// (hitz egiteko azken txandan honakoa esaten du) Labur esango dut. Ez naiz hasiko Leirek edo zuk, Beñatek, esandako guztiari erantzuten. Uste dut zuen argumentazioak ez diola gaiaren mamiari heldu. Esan beharrean Garapen jasangarri batzordea dagoela, komunikabideetara jo beharrean informazioa eskatu dezakegula, emango zaigula... horrek "atez atekoarendako" zein beste edozein konturako balio du. Nik ez dakit nola antolatzen diren bilkurak, aktak nola jasotzen diren; dirudienez, norbaitek hitz egiten duenean eskua altxa behar duenez eta berariaz eskatu aktan jasotze... baina, nik esaten badut jasoko denez, Beñatek esandako esaldi bat esango dut aktan jaso dadin: "ez dugu uste legezko bidea denik sistema bat aldatzeko". Hor utziko dut. Eta kalitatezko parte hartze prozesua gura dela, ba, niretzako egokiena, lehen esan dudan bezala, egoitzarena egin zenean egin zen bezalako kontsulta egitea da. Eta gauza bat, Juan Luis: sinestezina da mozioan nola igotzen doan birziklatze kopurua. Ezagutzen dituzu Antzuolako Udalak emandako datuak? % 85a birziklatzen dela esaten duten horiek, %85 zer kopurutik? "Atez ateko" ezarri denetik, urte batetik bestera, %55-60 inguru jaso da, 350 tona ingurutik edo, 195.000 tonara-edo pasa da. Buruz ari naiz datuak ematen. Gero, %85a, zer kopurutik? Eta zuk esaten duzu zilegi dela hau sistema on bat dela konbentzitzea, onena dela.

Eta nik galdetzen dut: zilegi da hau ez dela sistema on bat, eta ez dela onena konbentzitza? Hemen, batzuen diskursoetik, aurrerapena sistema probatzetik dator.

Parte hartzeak amaituta, mozio biak bozkatu dira.

Cantero jaunak eta Urrutia jaunak alde bozkatuta, Madinabeitia jauna eta Akizu jauna abstenituta, eta bertaratutako gainerako zinegotziek aurka, ez da onartu PSE-EE taldeak aurkeztutako mozioa.

Cantero jaunak eta Urrutia jaunak aurka bozkatuta, Madinabeitia jauna eta Akizu jauna abstenituta, eta bertaratutako gainerako zinegotziek alde bozkatuta, onartu egin da EZKER ANITZA-IU taldeak aurkeztutako mozioa.

---

**11.- KREDITUAK ALDATZEKO 3. ESPEDIENTEA ONARTZEA: KREDITU TRANSFERENTZIA.**

---

Udal Aurrekontuari eragiten dion gastu-partiden arteko kreditu transferentzia bidez egin beharreko kreditu aldaketarako espedientearen berri eman da.

Idazkari-kontuhartzaleak egindako txostena irakurri da, non adierazten baitu aipatutako espedita aplikagarria zaion araudiarri egokitzen zaiola, hain zuzen ere Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauak 28 a) eta 29. artikuluetan ezarritakoari.

Eztabaidaren ondoren bozketa egin da eta Udalbatzarrak, Merino jaunak kontra bozkatuta, Urrutia jaunaren abstenzioarekin, eta beste guztiekin alde bozkatuta, honako hau **ERABAKI DU**

Lehenik.. 3 zenbakidun kreditu aldaketarako espedientea onartzea - proposamenean zerrendatutako gastu-partiden arteko transferentzia bidezkoa-, Udal honen Aurrekontuari dagokiona, kapitulukako ondoko laburpenaren arabera:

## KREDITU TRANFERENTZIA PROPOSAMENA

**Gastu partidak: transferitu nahi diren kredituak (bajak)**

<b>Partida</b>	<b>Izena</b>	<b>Hasierako kreditua</b>	<b>Gutxipena</b>	<b>Amaierako kreditua</b>
0601.120.455.10.01	Oinarrizko soldatuk:Euskara	38.885,43	9.679,89	29.205,54
0601.121.455.10.01	Destino osagarria:Euskara.	21.691,40	6.372,87	15.318,53
0601.121.455.10.02	Berariazko osagarria:Euskara.	45.356,75	12.909,89	32.446,86
0601.160.455.10.01	Gizarte asegurantza:Euskara.	7.389,50	5.056,75	2.332,75
<b>GUZTIRA ...</b>		<b>113.323,08</b>	<b>34.019,40</b>	<b>79.303,68</b>

**Gastu partidak: gehitu nahi diren kredituak (altak)**

